



HIRUKIDE FILIPINEKIN ELKARTASUN KANPAINAN

Ikastetxeak biltzen duen dirua San Vicente hirian 500 ikasle hartuko dituen eskola egiteko erabiliko dute >2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-03-14

VIURTEA 1386.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Juan Garmendian, Joxe Mari Otermin eta Xatur Zabala, atzo liburuaren aurkezpenean. N.URBIZU

HERRIAZ KEZKATU DIRENAK IZAN DITU GOGOAN OTERMINEK

AMEZKETA 'Amezqueta, largo y tortuoso camino' Amezketari buruzko bigarren liburua aurkeztu zuen atzo Joxe Mari Oterminek 5

Aurrerako hiru bikote ariko dira Nafar Jokoen finaletan

LEITZA Bihar jokatu dute hasiberrien lehenengo eta hirugarren mailakoek Burlatan, eta haur kategoriakoek Lizarran 7

Pasaban hamargarren zortzimilako gailurraren bila

TOLOSA Dhaulagari igotzen saiatuko da hil honetan; hamalauak igo nahi dituela berretsi du 3

**Emakume bati
sexu ukituak egin
dizkiolakoan
gizonezko bat
atxilotu dute**

TOLOSA Herenegun gertatu zen, 16:30ak inguruan, taberna batean 2

**Gaur eta bihar,
Gazte Festen
bigarren
asteburuari
ekingo diote**

BERASTEGI Gaur herri afaria izango da, eta bihar sagardo dastaketa, besteak beste 6

Udalak Eneko Galarragari buruzko mozioa onartu du

VILLABONA Euroagindua bertan behera geratzea eskatzen du mozioak, besteak beste 3

txokoa
h

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu



aspepelota.com

Martxoak 17, astelehena
16:30ean • Tolosako
Beotibar pilotalekuan

Uriarte - Merino I
Cabrerizo - Apeztegia

XALA - NALDA III
MTZ. DE IRUJO - LASA III

Galarza V - Arruti
Olazabal - Galarza VI



4 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu

BRUESA GBC

Alicante Costa Blanca

OSTIRALA

MARTXOAK 19-20:30

ILLUNBE

Urtero bezala, Hirukide ikastetxean Elkartasun Kanpaina ari dira burutzen egunotan; aurten biltzen duten diruarekin Filipinetan hezkuntza proiektu bat laguntzea dute helburu.

Filipinekin elkartasuna

INIGO TERRADILLOS

Elkartasun Kanpainan murgilduta daude Hirukide ikastetxean pasa den asteetik. Urtero urtero burutzen duten ekimena da, eta aurtengoan, Filipinetan hezkuntza proiektu bat bultzatzea du helburu.

Hain zuzen ere, Itaka-Eskolapioak Fundazioa Filipinetako San Vicente herrian bultzatzen ari den eskola berri baten berreraiketaren aldeko proiektua da Hirukidetik ere lagunduko dutena eta «lortu behar den diru-kopurua handia denez, gurekin batera beste ikastetxe askok ikasturte honetan proiektu bera aukeratu dute euren kanpainetarako», diote bertako ordezkariak. Horretaz gain, Era-kunde Publiko eta Pribatuak ere luzatu diete proiektuan laguntzeko deia.

Ekintza ugari mezua zabaldu eta dirua biltzeko

Aurreko astean kanpainaren aurkezpena egin zieten Sendotzen II taldeko kideek (Batxilergoko 2. mailako ikasleak) bai ikasle guztiei baita irakasleei eta langile guztiei ere. Gauza bera egin zuten larunbatean izan zuten mezan, Jesuitinetan.

Aldi berean, Kirikiñoko Hel-duak II taldeko batzuk txapa batzuk prestatzen aritu dira. Hauek euro baten truke jarriko dituzte salgai, eta noski, bildutakoa Filipinetako hezkuntza proiektuarentzat izango da. Halaber, Batxilergokoek ikastetxean ipintzeko kartelak ere prestatu zituzten. Beraz,

ikastetxeko kide guztiak ari direla parte hartzen kanpainan esan daiteke, bai irakasleak, bai langileak, bai eta ikasleak ere.

Filipinar apaiz eskolapio baten bisita

Elkartasun Kanpainaren baitan, azpimarratzekoa izan zen atzoko eguna, ekitaldiz bete izan baituzten. Batetik, Mark Sagrado apaiz eskolapio filipinarra izan zen Hirukidengun osoan. Goizean eta arratsaldeko lehen orduetan Eskolapioetako ikasleei Filipinetako gaur egungo egoera zertan den azaldu zien, eta hezkuntza proiektuarekin lortu nahi dutenaren berri eman zien.

Arratsaldean, berriz, 18:30ean hasi ziren ekitaldiak. Jesuitinetan, Mark Sagradok proiektuaren berri eman zien bertaratu zirenguratsuei, eta ondoren, musikaz gozatzeko aukera ere izan zen Mikel Zelaia ikaslearekin, hainbat instrumentu jo zituen, gainera. Horretaz gain, Filipinekin zuzenean elkarriketa bat ere izan zuten atzo arratsaldean; hain zuzen ere, Filipinetan dagoen Jesus Lacarra apaiz eskolapioarekin hitz egin ahal izan zuten bideo-hitzaldi bidez.

Ekimenak jarraitzen du oraindik, izan ere, gaur jarraituko dute Hirukidengun Elkartasun Kanpainako ekitaldiek. Jesuitinetakoek askari solidarioa izango dute ikastetxean eta bigarren hezkuntzako ikasleek, berriz, arratsaldean izango dute jaialdia, 17:00etatik aurrera.



Mark Sagrado apaiz eskolapioa azaltzen ikasleei. I. TERRADILLOS

«500 ikasle hartuko dituen eskola egitea da gure helburua»

MARK SAGRADO Filipinar apaiz eskolapioa

I. TERRADILLOS

Filipinetatik duela 6 urte Espainiarra joan zen Mark Sagrado, 31 urteko apaiz eskolapioa. Madrilen ikasten aritu da, eta azken 2 urteak Oviedon eman ditu. Azken egunetan Eskolapioen hainbat ikastetxetan izan da Filipinetako proiektuaren berri emateko.

Zertan datza hezkuntza proiektua?

San Vicente 120.000 biztanleko hiria da. Bertan ditugu parroquia eta eskola. Eskola hau Bigarren Hezkuntzako da, eta egun 225 ikasle ditugu. 1968an sortu zen, eta oso egoera txarrean dago eraikina. Hirian badago Lehen Hezkuntzako eskola publikoa, baina ikasle gehiegi ditu, eta ez dago lekurik denentzat. Beraz, gure helburua, Lehen Hezkuntzako eskola egitea da, horrela denera, 500 ikasle hartuko genituzke, doako hezkuntza eskainiz. Horretaz gain, Bigarren Hezkuntzako eraikina berritu nahi dugu.

Zein da Filipinetako egoera?

Ez da egoera batere ona, pentsa, biztanleen %47k euro bat eta 40



I.T.

zentimo irabazten du egunean. Hobera baino, azken urteetan txarrera ere egin duela esango nuke. Hezkuntza proiektua oso garrantzitsua da guretzat, egoera aldatzeko oinarria izan baitaiteke. **Zein da zure eguneroko lana apaiz eskolapio bezala?** Eskolapio sartu nintzen nire denbora besteei laguntzeko erabiltzeko hartua hartu nuelako. Oviedon eskolak ematen ditut, eta eskolako parrokiaren mezak ere ematen ditut larunbata eta igandetan.

Gizonezko bat atxilotu dute emakume bati sexu ukituak egin dizkiolakoan

Emakumeen aurkako indarkeria » 54 urteko gizonezkoak antzeko aurrekariak dauzka.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak 54 urteko gizonezko bat atxilotu zuen herenegun arratsaldean Tolosan emakume bati ustez sexu ukituak egin dizkiolako.

Tolosako taberna batean izan zen gertaera, herenegun, 16:30ak aldera. Ertzainen arabera, emakumezko tabernaren barran zer bait hartzen ari zen, eta gizonezkoak ukituak egin hasi zitzaion. Biktimak beanean uzteko eskatu zion, baina gizonezkoak zeregin berean jarraitu zuen.

Ertzainek tabernara joateko abisua jaso zuten, eta bertara iristean hantxe atzeman zuten gizonezkoak. Antzeko aurrekariak dauzka la gizonezkoak azaldu du Ertzaintzarak.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfere: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Trikujai Diskofesta, bihar Beotibarren

Aisia » 22:00etan hasiko da festa eta 05:00ak arte luzatuko da; N. Sound eta Nemux Gang DJak ariko dira musika jartzen.

ERREDAKZIOA

Gazteria Departamentuak antolatuta Trikujai Diskofesta izango da bihar, Beotibar pilotalekuan 22:00etan hasi eta 05:00ak bitarte, beraz, festa ziurtaturik izango dute eskualdeko gazteak. Disko festari behar duen giroa emateko N.

Sound eta Nemux Gang DJak izango dira musika dantzagarria jarriko dutenak Beotibar pilotalekuan.

Sarrerak 3 euroren truke erosi ahalko dira, eta aldeaz aurretik Gazte Informazio Bulegoan eta Kultur Etxeko Gazte Topagunean eskuratu ahalko dituzte Diskofestara joan nahi dutenek.

Autobus zerbitzu berezia

Tolosakoek ez ezik eskualde osoko gazteek modu errazean izango dute aukera Diskojaiaren parte hartzeko autobus zerbitzu bereziak

jarriko baitituzte ondorengo ordu-tegiarekin: 00:30ean Tolosatik aterata, San Frantzisko, Turre, Amartz, Alegi, Amezket eta Ikaztegieta ibilbidea egingo du. 02:00etan eta 03:30ean aterata ere egingo du ibilbide berdina autobusak.

Bestalde, 01:00etan Tolosako San Frantziskoko geralekutik abiatuta, Iurre, Amartz, Ibarra, Berrobi, Eldua, Elduain eta Berastegi ibilbidea egingo du. 02:45ean eta 04:15ean aterata ere ibilbide bera egingo du Tolosaldea autobusak.



Diskojaieren kartela. HITZA

Edurne Pasaban, hamargarrenaren bila

Tolosa » Mendizaleak hamalau zortzimilakoak igotzeko asmoa berretsi du; hil honetan Dhaulagiri igotzen saiatuko da.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban mendizaleak 14 zortzimilakoak egiteko asmo horrekin aurrera jarraitzen duela azaldu du. Oraingo zortzimilakoak igotzeko asmoa berretsi du; hil honetan Dhaulagiri igotzen saiatuko da. Bere helburua da 8.000 metroko

altuera duten 10 mendi igotzen dituen lehen emakumea izatea.

Pasabanek azaldu duenez, «nik dudanez erronka pertsonal handibat da, eta urte asko daramatzat honetarako lanean. Agian, bost zortzimilako egin dituzunean, 14 igotzeko nahia izatea gehiegizkoa da, baina behin bederatzi lortu dituzunean, aurrera jarraitu beharra dago».

Mendizale tolosarrak gertu ikusten du proiektu hori buruztea, «baina ez nahi bezain gertu. Bost mendi gelditzen dira, baina lasaitasunez joan behar da. Proiektuaren %75a egin badago ere, oraindik bide luzea gelditzen zait egiteko eta horretaz ohartzen naiz».

Eresargi bihar, elizan

I. GARCIA

Ohi bezala, Villabonako Eresargi abesbatzak Aste Santuaren inguruan kontzertua emango du. Billa-

bonatarren emanaldia bihar izango da, herriko elizan, 19:45ean hasita. Herriar guztiak daude gonbidatuta bertara joateko.



Laburrak

Koadrilen Eguneko bilerara deitu du Festa Batzordeak

ANOETA » Herriko festetako Koadrilen Eguna antolatzeko bilera antolatu dute hilaren 17an, astelehena. Bileran 19:00etan hasiko da eta udaletxean bilduko dira. Festa Batzordeak egiten du deialdia eta koadrila guztiei dei egiten die bilerara joateko Koadrilen Eguneko egitaraua prestatzeko.

Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du biharko

IRURA » Zuhaitz Eguna antolatu dute Iruran biharko. Oraingo honetan apaiz etxearen azteko atsedenean egingo dute. 16:00etan hasiko dira landaketak egiten. Zuhaitzak eta landareak landatuko dituzte. Udalak deialdia egiten die herriar guztiei bertan parte hartzera. Landaketak bukatu eta gero askaria egingo dute atsedenean bertan. Eguraldi txarra egiten badu merienda Gazte Alaia elkartearen izango da.

Cycling-ean eta yogan izena emateko aukera

ANOETA » Apirilaren 1ean Abraham Olano kiroldegian hirugarren hiruhileko ikastaroei hasiera emango zaie, hau da, cycling eta yogo ikastaroei. Izen-emateak hilaren 18a arte zabalik egongo dira. Interesatuak daudenak kiroldegitik pasa edo bertara dei dezakete 943 65 13 33 zenbakira.

Eneko Galarragari buruzko mozioa onartu du Udalak

Villabona » EAE-ANVTik zeuden bost zinegotziek aldeko botoa eman zioten eta EAJtik zeuden biak abstenitu egin ziren.

ERREDAKZIOA

Eneko Galarragaren senide eta lagunak aurkeztutako mozioa onartu zuen Villabonako Udalbatzak ezohiko bilkuran. EAE-ANVTik zeuden bost hautetsik aldeko botoa eman zuten eta EAJtik zeuden bi zinegotzi abstenitu egin ziren. Mozioan zehazten denez, Udalak Eneko Galarragaren aurka Espainiak «inolako funtsik gabe» eskatutako euroa inguru bertan behara gelditzea eskatzen du eta «Eneko-aren eskubide zibil eta politikoa bermatzea».

Galarragarentzat askatasuna eskatzerakoan, «Euskal Herrian bizi eta lan askatasun osoz egitea orain artean bezala bere eskubide» dela zehazten du mozioan. Horrekin batera Espainiari eta Frantziari «deialdi jakintzari eta errepresioa erabiltzeari» utzi diezaiola exijitzen dio. «Eneko Galarragak, bere bizitza erabat publikoa garatu du Ipar Euskal Herrian», zehazten du testuan.

Beste puntu batean, Udalak «gertatu daitekeen atxiloketa berri honen aurrean kezka agertzen du. Euroa inguruaren prozedura bera ere kezkarria suertatzen zaio». Hala, atxilotuen senitartekoak bera aurkitzen den lekuan eta egoeraren berri izatea zein diligentzia judizial eta polizialean aukeraturiko abokatuaren eta medikuaren presentzia «ezinbestekotzat» ikusten du Udalak.

Kezka agertzen du baita ere «azken asteotan hainbat komunikabideetan entzun eta irakurritakoak eta errealitatea benetako denaren artean dagoen alde». Horrela, «gaizkile bilatuena izatetik, nahikoa frogarik gabe libre geratu zen 6 egunen ondoren. Denen ahotan izan zen atxiloketa bainanork, salbuespenak salbuespen, inork ez zuen bere askatasunaren berri eman».

Galarragaren senitartekoei elkartzasuna eta babesa adierazi die Udalak eta atxiloketa hauek «sortzen dituzten ondorioetan Udalaren laguntza jasotzeko konpromisoa» ere adierazi. Etorikizunari begira «konponbidearen alde lan egiteko apustua» egiten du, «gatazka historikoa gaindituko duen konponbide demokratiko eta negoziatuaren bitartez».

Z Zurea da hitza info

«Eskerrik asko abisua emateagatik»

IRURARBAT

Aurreko batean HITZAN irakurri nuen gazte batek iruzurra egiten saiatu zela. Bizkaitarrez egiten zuen eta poltsa galdu zuela eta etxera itzultzeko dirua behar zuela. Bada, niri Iruran pertsona berdina agertu zait. Gauza berdinak kontatu dizkit, malko artean gai-

nera. Ez balitz aurretik istorioa irakurritu nuela HITZAN, dirua eman-go niokeen.

Beraz, alde batetik eskerrak eman nahi nuen abisua eman zueari eta, bestetik, ohartarazi nahi dut kontuz ibiltzeko pertsona horrekin, iruzurra egiten saiatzen ari baita.

Ez dira denak irabazle izan



» Iritzia

Joxemi Saizar

Aurreko astean ez nuen asmatu. Denak ez ziren irabazle izan aurreko igandeko hauteskundeetan. Abertzaleak ez behintzat. Etsipena izan da agian irabazle, amorrua, samina.

Sozialistek inoiz lortu gabeko emaitzak lortu dituzte gure eskualdean, ehunka boto igoz. Berperatan gertatutako bere kide baten hilketaren faktura. Horrelako gehiegikeriek (eta besteetan salatu izan ditudan beste era bateko gehiegikeriek) ez goaz inora, ez behintzat elkarriketa eta akordiora. Ateraka baizik. Ezin diogu bidegabekeriari bidegabekeriarekin erantzun.

PP ere jaitsi egin da herri gehienetan. Aztertzeok da Lizartzako kasua. Berriz ere. PP igo den herri bakarra da, duela lau urteko emaitzak asko hobetuz. Nola esplikatzeko da? Udal hauteskundeetan Egibarren kontrako zigor gisa interpretatu zuten batzuk. Eta orain? Nondik atera dira boto horiek?

Orain hitzarmen garaia dator. Madril behintzat. Norekin hitzartu dezakete zedozer abertzaleek egoera honetan? Eta ezker abertzaleak hemen? Arrasaten segituan nabaritu da hilketaren ondorioa udal gobernuan. Tolosarekin anaieratuta zegoen (ala oraindik dago?) Uztaritzen Battitta lagun abertzalea izango da hautagai sozialisten laguntzarekin. Bada alde Pirinioen alde batetik bestera!

A! Eta karlisten deiari jarraituz, Gipuzkoa osoan 200 lagun inguruk ez iziltzea erabaki zuten. Karpaina ikusita, ez da gutxi. Hauek bai, irabazle.

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

Eskaintzen da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finkoak eta komisioek osatua.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatza.

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailerako (erref.: 08-ikm)

Eskatzen da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioidea den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolokuntzarako gaitasuna.

Eskaintzen da:

- Etorikizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehatuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

The Matt Harding Project izango da gaur ikusgai Fronton kafetegian

Musika » Matt Harding musikariarekin Michel Longaron tolosarrak eta Mikel Azpiroz donostiarrak osatzen dute hirukotea.



Matt Harding kontzertuetako batean. HITZA

ERREDAKZIOA

The Matt Harding Project taldearen kontzertua izango da gaur, 23:30etik aurrera Fronton kafetegian. Mikel Azpiroz (organoa, Donostia), Michel Longaron (bateria, Tolosa) eta Matt Harding (ahotsa, kitarra, Salt Lake City) musikariak osatzen dute taldea, eta gaurko zuzenekoan euren azken lana *Hello Africa* izeneko aurkeztuko dute.

Matt Harding polifazetikoa dela

esan daiteke. New Yorkeko Institutu batean irakasle izan zen, Shanghai jazz klub baten jabe, eta Filipinetan misiolaritzan aritua da. Baina etiketa hauen guztien gainetik, Utahn (USA) sortutako gizon hau musikaria da.

Folk, blues, jazz eta country
Bere musikan folk, blues, jazz eta countryak dute eragina, eta baita Europa, Hego Amerika, Asia eta Afrikara egindako bidaiek ere.

Berak jorratzen duen *americana* estilo berezi eta eklektikoa, J.J. Cale eta James Tayloren arteko nahasketa garaikide bat bezala defini daiteke. Bere dohain musikalak, Taj Mahal eta John Lee Hooker bezalako artista kontsagratuek goraiatu izan dituzte.

Ikaskuntza Bitartekotza Zerbitzuaren eskutik, adimen emozionala

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Ikaskuntza Bitartekotza Zerbitzuak antolatuta, apirilaren 14tik 24ra adimen emozionalari buruzko ikastaroa izango da Tolosaldea GMLH Institutuan. Astelehenerik ostegunera izango da, arratsaldean, baina ordutegia oraindik zehazteko dago.

Interesatuak daudenek, langileek ala langabetuek, har dezakete parte, eta izen-ematea 615 775678 zenbakira deituta, info@ikastn.com helbidera idatzita edo www.ikastn.com webgunean sartuta egin ahalko da. Doan izango da, Tolosaldeko Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza Bitartekotza Zerbitzuak diruz lagunduta.

S Soka motzean

«Lokutorioa solasean aritzeko elkargunea ere bada»

ABDEL ILAH

Lokutorioaren jabea

INIGO TERRADILLOS

Tolosako San Frantzisko kaleko lokutorioaren jabea da Abdel Ilah (Maroko, 1967). Duela 10 urte etorri zen gurera bizitzera, eta duela 4 urtetik da lokutorioaren jabea.

Nolatan hartu zenuen lokutorioa?

Bat batean iritsi zitzaidan aukera, eta hartu egin nuen.

Nora egiten dituzte deiak gehienek?

Marokor eta Latinoamerikar.

Nora deitza da garestiena?

Kubara.

Jendea askotan etortzen al da deitzera?

Ia jende berdina ibiltzen dela esan daiteke, eta asko ia egunero etortzen dira telefonoz hitz egitera.

Telefonoz hitz egitera bakarrik?

Lokutorioa elkartzeko lekua dela esan daiteke. Jendea solasean aritzera ere etortzen da, eta askotan psikologoarena egitea ere tokatzen zaidala ere esan dezaket, euren arazoak-eta konartzatzen dizkizutelako.

Geroz eta lokutorio gehiago daude. Tolosan, esaterako, egun hiru daude.

Bai, geroz eta etorkin gehiago dauden seinale.

Zuk ere deitzen al duzu atzerrira?

Familia badut nik ere kanpoan eta, noski deitzen diet.



I.T.

L Laburrak

Salouen oporraldia Harizpe jubilatuaren elkartearekin

TOLOSA • Tolosako Harizpe jubilatuaren elkar-teak Saloua oporraldia antolatu du ekainaren 1etik 15era arte. 395 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta ez bazkideek 401. Prezio horretan autobusa, 14 eguneko egonaldia hotelean pentso osoan, bidai aseguru eta gidari laguntzailea sartzen da. Izena ematea 100 euro ordaindu beharko dira, eta gainontzekoa txartela jasotzean. Izena emateko azken eguna maiatzaren 22a izango da.

Auzo batzarra egingo dute gaur Urkizun, 20:00etan

TOLOSA • Urkizuko Apaiz-etxe lokallean auzo batzarra egingo dute gaur Udalak deituta, 20:00etan. Berpiztu egitasmoa dela-eta osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkezteko eta auzotarren artean atzeman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatzeko. Iaz jarri zuten martxan Berpiztu egitasmoa Tolosako Udala, Itsamendikoi eta Tolomendiri esker.

Oroimenaren bulegoa zabalik dago Aranburun

TOLOSA • Gerra Zibilean errepresioa jasandako biktimek eta familiek informazioa jasotzeko bulegoa Aranburun dago zabalik, astelehenera 16:00etatik 20:00etara, asteartean 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Aranzadi elkartea eta Tolosako Udalaren ekimena da.

Oñatira irteera antolatu du Harizpek apirilaren 8an

TOLOSA • Harizpe jubilatuaren elkar-teak Oñatira eta Arrikruz kobara irteera antolatu du apirilaren 8rako. 09:15ean aterako dira San Frantzisko ibiltokitik. Irteeran zehar, Arantzazuko santutegia bisitatuko dute, Arrikruz haizuloa, Oñati, Oñatiko unibersitatea eta San Migel parrokia. Bazkaria Soraluze jatetxean izango da. Irteera honetarako bazkideek 28 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 31. Apirilaren 3ra arte edota txartelak amaitu arte izango da izena emateko aukera.



Bete itzazu urteak hitzarekin

Harpidetza eskaintza berezia

HITZAren harpidedun egin zaitez martxoan, eta bi opari hauetako bat jasoko duzu.



Joxe Mari Oterminen herriari buruzko bigarren liburua aurkeztu dute

Amezketak » Egileak 'Amezketak, largo y tortuoso camino' idaztean «herriaz kezkatu direnak» omendu nahi izan ditu.

NEREA URBIZU

«Liburu hau omenaldi apal bat da, Amezketaz kezkatu eta herriari buruzko izena eta historiak liburu-erara eraman dituztenentzat», hasi zen Joxe Mari Otermin: Azkue, Barandiaran, Elosegi, Lekunona, Joxe Artetxe, Juan Garmendia (aurkezpenen bertan zen), Antonio Zabala... «Haiek gure hondarea mahai gainean jarri digute». Atzo aurkeztu zuten Amezketari buruzko bigarren liburua: *Amezketak largo y tortuoso camino*, eta *Amezketak, bide luze bezain malkarrak* lehen liburua osagarria da. Jose Mari Otermin amezketarra da egilea.

Emaitzarekin «pozik» agertu zen Otermin, Xatur Zabala alkateordearekin eta Juan Garmendiarekin batera. Zabalaren aldetik, eskerrak eman zizkion idazleari Jesus Iñurrira alkatearen partetik,




Juan Garmendia, Xatur Zabala alkateordea eta Joxe Mari Otermin, kazetari bati erantzuteko prest. N. URBIZU

eta Udalaren izenean: «Liburua egiten gogotsu aritu dela agerian dago». Garmendiak, bere aldetik ere, eskerrak eman zizkion Otermini, «galduko ez diren kontuak idatzi eta gorde dituelako».

Lehenengo liburua osagarri
Gaztelaz egindako lana da bigarren hau, eta hainbat arrazoi eman zituen Oterminen: «Nire adineko

emakume batek, euskaraz irakurtzeko gai ez zela esan zidan lehenengo argitaratu genuenean. Bestetik, familia atzerrian duten senideek uler dezaten». Beste arrazoi bat: «Amezketako %6 atzerriarra da, eta herria ezagutzeko aukera bat da liburu hau gaztelaz». Bukatzeko, historikoki Amezketak «isolatuta egon da, baztertu xamar, eta ezagutzeko bidea

ematen du liburuak gaztelaz». Liburuak lehenabizikoari helitzen dio, baina «berria da, bestearren osagarri: historia berriak aurkitu ditut herriarekin lotuta, eta horiek irakurri ahal izango dira». Kontzentrazio landan egondako amezketarren historia bat dago, herriko lehen idazle emakumezkoari buruzko kontuak, Lezauna lanera joan ziren amezketar ba-



Liburuaren azala. N.U.

tzuen kontu latzak... Noski, Pernando Amezketarra ere aipatzen da: «Ez dut ia gauza gehiago topatu, baina gehiago jakin nahi dut».

Liburu hau «transmisioari helteko bidea da: herriaren historia biltzen jarraitzeko keinu bat. Apunteak dira, transmisioa nola joan behar duen erakusteko, eta gazteei dei egin nahi diet, lan hau har dezaten, gauza asko argi ditzaten herriarekin lotuta». Lan honetan idazleak gazteekin konpromisoa hartuko lukeela adierazi zuen.

Familia bakoitzeko liburu bat

Udalak ale bana utziko du Amezketako familia bakoitzeko. Bestela, udaletxean izango da salgai Aste Santu ondoren. Kutxak ere lagundu du proiektu honetan, eta idazleak hau ere eskertu nahi izan zuen.

«Historia berri asko dago liburuan»

JOXE MARI OTERMIN » Idazlea

Kultura » 'Amezketak, largo y tortuoso camino', herriari buruzko bigarren liburua da, Oterminena, eta herritarrei banatuko zaie.

Amezketak, largo y tortuoso camino da Joxe Mari Oterminen egin duen bere herriari buruzko bigarren liburua (Amezketak, 1948). Kazetaria ogibidez, irratian ere lan egin du urte askotan, eta gaur egun,

ETBko programa zuzendari-ordea da. Zaletasunen artean, bere herriari buruzko istorioez gehiago jakitea dago.

Duela bi urte eta erdi herriari buruzko lehen liburua egin zenuen. Zein alde dago?

Ezberdinak dira. Ez naiz itzultzailea, eta hau ez da gaztelarera pasadun liburua, ez dut lehenabiziko liburu hura itzultzeko beharrik ikusi. Errotan, beste modu batean dago egin. Historia berri asko dago: bi urte hauetan gauza gehi-

go topatu ditut eta horiek sartu egin ditut.

Horrenbeste dokumentazio nondik ateratzen duzu?

Valladoliden (Espainia) izan naiz, Tolosan, Gipuzkoako artxibo orokorrean, Ordizian, Beasainen... Askok gustatzen zait. Zalaletasun bat da neurri batean, gustura ibiltzen naiz lan hau egiten. Oporrak aprobetxatzen ditut alde batetik bestera joateko. Gauza asko ikasi ditut. Oraindik gauza asko dago kontatu gabe.

Argazkiek ere garrantzia dute, ezta?

Liburuak bi motatako argazkiak izan ditzake: kalitate onekoak, apaintzeko balio dutenak, eta bestela historia duten argazkiak. Bada, lehiatzen naiz gure historia grafikorekin eta esanahi handia duten kalitate txarrekoak jartzea nahiago izan dut, apaintzekoak baino. Frantzisko Otamendi, Dionisio Etxeberria, Juanito Maiza... hor izan dira argazkiak uzten eta laguntzen.

Beste proiekturik ba al duzu martxan?

Bai, baditut. Martxan da Fernandoren garaiko Amezketak 1764-1823, eta hasia naiz Amezketako pikaroei buruzkoa egiten. Amezketako ondare grafikoa egin nahi dut ere, baina hori ideia da.

Zeini dago zuzendua lan hau?

Lehenengo liburua irakurle zehatz batentzat zela uste nuen, eta adineko jendeak irakurri du. Oraingoan gazteei egin nahi nieke keinua, Amezketak zer zen erakutsi. Irakurleko naturala Amezketak handia duten kalitate txarrekoak jartzea nahiago izan dut, apaintzekoak baino. Frantzisko Otamendi, Dionisio Etxeberria, Juanito Maiza... hor izan dira argazkiak uzten eta laguntzen.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Neska bat behar da tabernan asteburuetan lan egiteko. 943 65 30 93.

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Irurako tabernan lan egiteko. 943 69 26 32.

■ **Etxeko lanak.** Neska euskaldun bat behar du etxeko lanak egiteko eta adineko emakume bat zaintzeko. Alegian. 651 70 42 19.

BESTEAK

■ **Harremanak.** 40 urteko mutila, jatorria eta langilea. Neska bat ezagutu nahi nuke. 638 89 72 96.



Mahai jokoetako sari banaketa egin dute

ALEGIA » Aurten jubilatuen artean mahai jokoetan trebeenak saritu dituzte urteroko txapelketan, Alegiko jubilatuen tabernan: Zubillaga-Ugartemendia eta Otaño-Irazustabarrena musean; Ermina-Ruiz eta Otaño-Irazustabarrena tutean; eskoban, Urrestarazu-Zumeta eta Garmendia-Arsuaga eta txintxonean, Arsuaga. P. RENOBALES

Gazte Festen bigarren asteburuari ekingo diote herritarrek gaur eta bihar

Berastegi » Gaur herri afaria bertsoarietara eta bihar sei garagardo desberdin dastatzeko aukera egongo da.

ASIERIMAZ

Berastegi Gazte festen lehen txanpa iragan asteburuan ospatu bazen, gaur eta bihar bigarren txanpaz gozatuko dute herritar eta

ingurukoek. 18:30ean gazteen eta elduen arteko futbol partida jokatu da, 21:00etan bertso afaria egingo dute Kakonen Tximeleta taldearekin amaitzeko.

Sei garagardo mota

Biharkoan 18:30ean Toka txapelketaz gain, frontoian garagardo desberdin dastaketa egongo da, sei mota egongo direlarik. Jaiei amaiera Laiotz taldearen erromiriak emango die.

» EGITARAUA

Gaur

- 18:30. Futbol partida.
- 21:00. Herri afaria bertsoarietara Kakonen.
- 00:00. Tximeleta taldea.

Bihar

- 18:30. Garagardo dastaketa frontoian eta Toka txapelketa.
- 00:00. Laiotz taldea.

Zurea da hitza info

«Martxoaren 9ko gertakari latz bat salatu beharrean gaude»

LEABURU-TXARAMAKO EZKER

ABERTZALEA

Martxoak 9ko gertakari latz bat salatu beharrean gaude. Leaburu-Txaramako zenbait herritar herriko elkarteak aterpean geundelarik, 12:30ak aldera, Mari Cruz Aguirre Rivera alkatea eta bere senarra den Juan Francisco Lasabozkatzera zihoazen unean gure aurrean gelditu, eta azkeneko honen listua gure ondora botatzeko, honako hauek esan zizkigun: «Nazis! Perros!». Gero berriz aterpe barrura sartu zen, eta probokazioa handituz bertan geunden guztioi eskua pistola bezala jarriz, egun batean modu horretan hilko garenaren mehatxua egin zigun. Ondoren, bertako herritar baten gana zuzendu, eta txistua aurpegi-

ra botatzeko, herrian azaldu diren pintadak berri leporatu zizkion mehatxu eta irainen artean.

Gertakari guzti honen aurrean, bere emaztea den Mari Cruz Aguirre alkateak ez zuen egin bere gizonaren probokazioa bukatutzat emateko. Gero udaletxe aldeantantz abiatu ziren eta ertzainak bertan zeudela aprobetxatuz, jipotzen ari ginaren antzerkia egin du, «me estan pegando» oihukatuz. Hau al da zuen bakea eta erabakitze eskubidea?

Hauteskundeen balorazioa

Datuen azterketa egin ostean eta azkeneko hauteskundeekin aldearatu ondoren Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak honakoa hausnartu du:

Abstentzioa izan zen garaile %74koaz, pentsakera ezkertiar eta abertzalea duten biztanleen kopuruak bere horretan diharduelarik.

Bestetik azken hauteskundeetan Batzar Nagusietarako PNV; EA; Aralar; PSOE eta PPren bozka kopurua 79 izan zen, igandean antzekoa: 83. Bozka hauek eskuin (PNV) alderajoa zirelarik.

Guzti honek zera egiaztatzen du ezker abertzaleak, behin eta berriz aipatu izan duen bezala, gure herriaren gidaritzan dagoen Bide Berriak taldea eskuin alderdien gidaritzapean dagoela, PNVren gidaritzan alegia. Ezker Abertzaleak dei egiten dio Leaburu-Txaramako biztanleei norabide horretan jarrai dezan, bide bakarra bozka eta negozioa delarik.

Etxean bai! kanpoan...



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Azkenean amaitu da. Jada ez dugu ez iragarki elektoralik, ez promesarik, ez gezurrik entzungo. Indartsuenentzako egindako kanpaina izan da, komunikabideetan hala saldu dute, eta hauek nahi zutena lortu dute. Handiak handiago egin dira eta txikiak txiki. Beraz, berri ere lau urte indartsuen esku gaude, nahi dutena egiteko aukera izango dute eta besteok, erabakietan zer esan gutxi edo bat ere ez dugu izango.

Gureari helduta, bizia eman digun garaipena lortu genuen larunbatean Cadiz indartsu baten aurka.

Sailkapenean gure inguruan eta orain gure atzean egon arren, oso talde indartsua direla erakutsi zuten. Asko sufritu genuen betiko legez, baina 37 puntu poltsikoan ditugu eta konfidantza berriro ere taldera bueltatu da. Orain gure iluntasun bakarra argitu nahi dugu, kanpoko partiduetan emaitzak atera. Garaipen baten ondoren, etxetik kanpo Granadaren aurka hiru puntu lortu eta aste borobila osatzeko aukera dugu.

Amaitzeko, aspaldian pilotaren inguruan aipurik egin gabea naizenez, zer edo zer esan beharko dut. Adibidez, aztia berriro ere, bartzuen zoritzarrerako, final batean ikusiko dugunaren susmoa dudala, izan ere, berriro ere pilotaren onerako aztitasunean erori da, eta pilotazale guztiak gozatzen dugu pilotari batek honela jokatzeko duen. Inoiz ez omen du binakako zapela lortu, baina aurtun ez da Goizueta eta Hernani aldetik urrutitilik, oker ez nabilela uste dut. Denbora izango da lekuko.



Ipuin kontalariaren bi saio eskolan

LIZARTZA » Ipuin kontalariaren bisita eduki zuten atzo Lizartzako eskolako haurrek. Idoia Sanchezek bi saio desberdin eskaini zituen, lehena 09:30ean 6-11 urteko haurrentzat eta 10:30ean 2-6 urte bitarteko txikiarentzat. Eskolako arduradunek Idoia Sanchezen ipuinak entzunaz «oso gustura» egon zirela aipatu zuten. HITZA

Eskertza

CANDELARIA
ASTIGARRAGA
ALKORTA



andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak hileta elizkizunetara etorri zireten guztioi.


Azkoitia, 2008ko martxoaren 14a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteumenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)



Nafar Jokoak irailean hasi ziren eta pilota eskolako 30 pilotari inguruk parte hartu dute. NAIARA GARZIA

Nafar Jokoen finaletan bihar, Aurrerako hiru bikote

Pilota » Hasiberrien lehenengo eta hirugarren mailakoak eta haur-kategoriakoak dira finalak jokatuko dituztenak.

NAIARA GARZIA

Asteburu honetan Nafar Jokoen finalak jokatuko dituzte Nafarroako hainbat herrian. Aurrera Pilota Eskolako pilotariei dagokienez, 3 bikote sailkatu dira finalerako, eta hauek bihar jokatuko dute.

Hasiberrien kategorien, hau da, alebinetan, 2 bikote sailkatu dira: Ibai Azurmendi eta Iker Sagastibeltza, alde batetik (hauek hirugarren mailan) eta Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Ander Gartziaarena, bestetik (hauek hasiberrien lehenengo mailan). 2 bikote hauek Burlatako Askatasuna Pilotalekuan ariko dira bihar: lehenengoak San Migel B taldeko bikotearen aurka lehiatuko dira, bigarrenak, aldiz, Oberena A taldeko bikote baten aurka.

Finalerako sailkatu den azkeneko bikotea haur-kategoriakoa da (lehenengo maila). Xabier Jaunarena eta Mikel Hernandez dira eta hauek Lizarran jokatuko

dute finala, Zugarralde A taldeko beste bikote baten aurka.

Irailean hasi ziren Nafar Jokoak eta hilabete hauetan makina bat norgehiagoka jokatuta ondoren, iritsi da kategoria bakoitzean irabazleak zein izanen diren jakiteko garaia.

Finalen aurrean, baikor

Pakito Sagastibeltza Aurrera Pilota Eskolako arduraduna 3 final hauen inguruan mintzatu da. «Gure asmoa 3 finalak irabaztea da. Hori da, betiere, gure intentzioa. Gero partidaren bat beti okertu daiteke, baina logika baten barruan jokatuz gero, nik uste aurrera ateratzeko moduan direla». Pilota eskola lortutakoarekin «gustura» dagoela azaldu du Sagastibeltzak. «Gustura gaude lortu dugunarekin. Gertatzen dena da beste 2 bikote ere sartu nahi genituela finaletan, bai kadeteetakoak, bai alebinetako bigarren mailakoa. Itxaropen hori geneukan, eta aurrerako batean esan nuen bezala, gauzak okertu egin ziren».

Ibai Azurmendi, Iker Sagastibeltza, Mikel Sagastibeltza, Ander Gartziaarena, Xabier Jaunarena eta Mikel Hernandez dira, beraz, finala jokatuko dutenak. «Mutirik

ilusioz beterik daude. Final bat beti final bat da, ez du axola Leitzako plazan baldin bada ere, final bat serioagoa izaten da. Nahiz txikiak izan, konturatu egiten dira. Finala azkeneko kokka da, finalerdietatik ere ezberdina izaten da, eta pilotariei hori nabaritzen zaie».

Finalurrekoak

Joan den astean finalurrekoak jokatuko zituzten, batzuk Leitzan eta beste batzuk kanpoan, izan ere, alebinetako lehenengo mailan finalerdietarako sailkatu ziren 4 bikoteak leitzarrik baitziren. Hauek, beraz, Amazabalen lehiatu ziren. Ibai Azurmendi eta Iker Sagastibeltzak, berriz, Burlatan jokatuko zituzten finalurrekoak (18-17 irabazi zuten) eta Asier Gilek eta Lenitz Galartzak, Lizarran (hauek 18-10 galdu zuten).

Zaramagako txapelketa

Txapelketa hau duela hilabete inguru hasi zen eta asteburu honetan Aurrerako 2 bikote parte hartuko dute lehenengo aldiz, 2 kategoriatan: Sagastibeltza Lasartek eta Anduezak eta Aldaregiak eta Hernandezorenak. Txapelketa pribatua da eta kanporaketa jokatuko dute, igandean.

Malerrekako finala

■ **Donezteben.** Jon Jaunarena eta Josu Bergerak irabazi zuten, Oier Apezetxeak eta Xabier Madariagak 17 tanto lortu zituzten.

■ **Donezteben.** Renobalesak eta Galarragak irabazi zuten, Irigoienek eta Iparragirrek 6 tanto lortu zituzten.

■ **Burlatan.** Zugarralde Ek 17, Ibai Azurmendik eta Iker Sagastibeltzak 18.

■ **Lizarran.** Lizarrak 18, Asier Gilek eta Lenitz Galartzak 10.

Emakumezkoen DV Saria

■ **Tolosan.** Iera Agirrek eta Maite Ruizek 30, aurkariek 15.

» JOAN DEN ASTEBURUKO EMAITZAK

Nafar jokoak, finalerdia

■ **Amazabalen.** Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Ander Garziarena 18, Mikel Sagastibeltza Eguesek eta Oier Igartuak 6.

■ **Amazabalen.** Xabier Jaunarenak eta Mikel Hernandezorenak 18, Joxerra Aldaregiak eta Anartz Olanok 4.



Bi leitzarrentzat finalera sartzea ez da batere erraza izanen. N. LIZARTZA / A. IMAZ

Barriola eta Bengoetxea kili-kolo finalean sartzeko

Pilota » Elkarren aurka ariko dira bihar Barriola, Gonzalez, Bengoetxea eta Otxandorena, Labrit pilotalekuan.

N. GARZIA

Barriolak eta Gonzalezek Bengoetxearen eta Otxandorenaren aurka bihar jokatuko duten partida hil ala bizikoa izanen da 2 bikoteentzat. Batak edo besteak irabazi arren, igandeko norgehiagokaren zain egon beharko dute binakako finalerako sailkatu diren edo ez ikusteko. Igandean Titin eta Laskurainek Olaizola II.aren eta Mendizabal II.aren aurka jokatuko dute.

Joan den asteburuko porrota

Joan den asteburuan Binakako Txapelketako finalurreko ligaxak porrotik garrantzitsuena Barriola eta Gonzalezena izan zen. Txapelketako partida guztiak irabaziondoren, 22-9 galdu baitzuten Olaizola II.aren eta Mendizabal II.aren aurka. Zenbait kazetarienzat «zigorra» gehiegizkoa izan da, galdutako partida bakarraren ondorioz ia finaletik kanpo gelditu baitira.

Herenegun Labriten egindako pilota aukeraketan Gonzalez azkeneko partidaren inguruan min-

tzatu zen. «Finalera iristea oso zaila daukagu, eta horrek izurratu egiten digu, Abelek eta nik txapelketa bikaina jokatuta baitugu, eta partida txar batengatik kanpoan gelditu gaitezke».

Bengoetxea VI.ak eta Otxandorenak finalera sartzeko gauzak zailago dauzkate. Otxandorenak, partida honetan ere Patxi Ruiz ordezkatu du.

Gauzak horrela, herenegun 4 pilotariak Labrit Pilotalekuan elkartu ziren, finalurreko ligaxak azkenurreko material hautaketa egiteko, atzo Titin, Laskurain, Olaizola II.a eta Mendizabal II.a izan baitziren azkenak.

Material hautaketa

Herenegun egindako material hautaketa luze joan zen, 4 pilotariak lasai aukeratu baitzituzten bihar erabiliko dituzten pilotak.

Bengoetxeak bere eskuin sorkaldak ez diola inolako arazorik ematen azaldu zuen, eta hauek finalera pasatzeko aukera gutxiago dituzten arren, ez du federik galtzen. «Oso zaila daukagu, baina federik ez dut galdu, gainera kontua ez da irabaztea soilik, tanteoak ere bere garrantzia du eta gero itxaron egin beharko dugu».

Larunbateko emaitzaren ondoren, 4 pilotariak igandeko partida amaitu arte itxaron beharko dute, zergertatzen den jakiteko.

BERRIAk telemarketin saileko lan poltsa osatu behar du

(erref.: tlmk)

Telefono bidezko gestioak egingo dituen administrari edo komertzial bila gabiltza. Bete beharreko zereginen artean **harpidetzak lantzea, inkestak egitea eta kobrantzak bideratzea** legoke.

Soldata finkoa eta emaitzen araberako komisioa eskaintzen da, lan kontratuarekin. Esperientzia izatea ez da ezinbestekoa, baina kontuan hartuko da telemarketin arloan, telefono bidezko lanetan eta komertzial gisa aurretik aritua izatea. Hizkuntza abilezia ere kontuan hartuko da.

Interesdunek curriculuma bidali gb@berria.info helbidera, erreferentzia zehaztuz.



15°
10°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

- **Hernialde.** Kultur Errota eskolan 17:30ean: *Txotxongiloak erasoan!*
- **Villabona.** Tapeplas 2 dantza taldeak *Monkeys* ikuskizuna eskainiko du Gurea aretoan IV. Dantza Garaikide Zirkuituraren barruan.

Deialdiak

- **Tolosa.** Amaroako Auzo Elkartearen merkatu txikia Nikaraguako Malpaisilloko hezkuntza proiektuaren alde.
- **Tolosa.** Paisaiari buruzko argazki tailerra. Martxoaren 31tik ekainaren 30a bitartean, astelehen eta asteazken arratsaldetan, Iñigo Royoren eskutik. Izena emateko azken eguna gaur.

Musika

- **Tolosa.** Tolosako Orfeoik Mozarten *Requiem* eskainiko du Leidor aretoan 20:30ean Concerto orkestrarekin, Amaia Arberas, Iñigo Casali, Gleisy Lovillo, Jose Bernardo Alvarez eta Arkaitz Mendozabakarlariekin.
- **Tolosa.** The Matt Hardin Project Fronton kafetegian 23:30ean.
- **Tolosa.** Sociedad Alkoholika Bonberenean 22:30ean.

Hitzaldia

- **Tolosa.** Beatriz Ezeizak *Gure seme-alabek heziketa osasuntsua izan dezaten...* hitzaldia emango du Laskorain Ikastolan, Usabalgo areto nagusia, 19:00etan 0-3 urteko haurren gurasoentzat.

Zinema

- **Leitza.** Kenneth Branagh irlandar



Musika doinu gozoenak

TOLOSA ■ Eduardo Mocoeroa Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten herenegun arratsaldea. Kontzertua, Musika Eskolan bertan izan zen. Hainbat herritar gerturatu zen bertara entzule moduan. Soka laukotea, akordeoiak, klarineteak, kontrabaxua, orkestra txiki bat, pianoa eta txeloak izan ziren entzungai, besteak beste. Askotariko estilo motak entzun ahal izan ziren musika eskolakoen aldetik, swing-a, folka, herrikoiak, rock-a eta modernoak, esaterako. E. EZEIZA

rraren *La flauta magica* filma emango dute zineman gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunikuzinik.

A Agurrak



Urte askoan!

Juanen. Dagoeneko mende laurdena... Muxu handi 1 Gemma, Aitziber eta Joxemariaren partetik.

Zuretzako etxea dugu Estellerrian

Lizarrar: Duplexa

- Lizarrako zonaldia onenean
- Zabalkunde eremu batean
- 90m²-ko duplexa
- Altzariz eta ebakintza elektrikoak hornitutako sukaldia

Lizarrar: Familia bakarreko etxeak

- 70m²-ko partziala + 110m²-ko etxebizitza
- 4 logelak + 2 bainugela eta komunak
- 20m²-ko egongela
- Altzariz eta ebakintza elektrikoak hornitutako sukaldia

Amillao: Urbanizatutako partzelak

- 350m²-ko urbanizatutako partzelak, hagoaldenantz orientatuak
- Lokiz mendiarren eta Urbisako Parke Naturalaren inguruan

Villatuerta: Urbanizazio eskusiboa

- Urbasa eta Andialo Parke Naturalaren ondoan
- Urbanizazio berezita
- Binaikako etxeak eta eraikin abuziak, 175m² erabilgaitz artekoak
- 300m² arteko partzelekin

Tolosa
Lizarrar
Bosmanago kalea, 1, solatuaurrea
Tel: 943 65 11 22 - Muga: 879 94 27 85

Irulha
Gorri kalea, 35, behea
Tel: 943 29 14 13

Lizarrar
Vianako Printzearen kalea, 11, behea
Tel: 943 02 08 94

hitza

info

herri informazioaren
leihoa

dagoeneko zabalik

www.hitza.info